

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Lehiaketa iragarkia: Bermeoko udal azokan hutsik dauden postuen aprobetxamendu pribatiborako emakida administratiboa ematea.**

2021eko maiatzaren 4an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiarekin bat, iragarki honen bidez Bermeoko udal azokan hutsik dauden postuen aprobetxamendu pribatiborako emakida administratiboa esleitzeko baldintzak arautzen dituen deialdia egiten da.

Helburua: Txikizkako salmenta, baimenduta dauden produktuak saltzeko.

1. *Erakunde esleitzaila*
 - a) Erakundea: Bermeoko Udala.
 - b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza Saila.
 - c) Espediente-zenbakia: IDA_DEK0323_2021.
2. *Dokumentazioa eta informazioa lortzea*
 - a) Bulegoa: Idazkaritza Saila.
 - b) Helbidea: Irakaskintza, 14-16.
 - c) Herria eta posta kodea: Bermeo, 48370.
 - d) Telefonoa: 946 179 105.
 - e) Webgunea: www.bermeo.eus.
 - f) Posta elektronikoa: idazkaritzakoat@bermeo.eus.
3. *Lizitazioaren xedea*
 - a) Mota: Jabari publikoa ematea.
 - b) Deskribapena: Bermeoko udal mugapean, udal azokan hutsik dauden postuen aprobetxamendu pribatiborako emakida administratiboa ematea.
 - c) Iraupena: Erabilerarako emakidaren iraupena 30 urtekoa izango da, emakida formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu.
4. *Izapideak eta prozedura*
 - a) Tramitazioa: Arrunta.
 - b) Prozedura: Irekia.
 - c) Modua: Enkantea.
 - d) Lizitaziorako gutxieneko kanona:
 - 1go modulua: 135,47 euro/hileko.
 - 2. modulua: 120,11 euro/hileko.
5. *Bermeak*
 - a) Behin-behineko bermea: ez da eskatzen
 - b) Behin betiko bermea:
 - 1go modulua: 589,37 euro.
 - 2. modulua: 458,40 euro.
6. *Eskaintzak aurkeztea*
 - a) Aurkezteko azken eguna: 15 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.



- b) Aurkeztu beharreko agiriak: lizitatuzaileek bi gutun-azal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, Administrazio Klausula Berezien Agiri-ko 12. klausulan adierazitako moduan eta edukiarekin.
 - c) Aurkezteko modua, hurrengo edozein aukera erabiliz:
 - Berhaz Herritarrendako Laguntza Bulegoa, Ertzilla kalea, 6-8, 48370 Bermeo.
 - Bermeoko Udaleko kontratatzailearen profilean: <https://bermeo.eus/1470.html>
 - Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.
7. *Eskaintzak irekitzea*
- a) Erakundea: Kontratazio-mahaia.
 - b) Eguna: Bermeoko Udalaren web orrian eta iragarki-taulan adierazitako eguna eta ordua.
- Bermeon, 2021eko maiatzaren 5ean.—Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense